

Columbretes uharteak airetik.

Columbretes uharteak Castelloko kostaldeetatik 30 miliatara aurkitzen ditugu. Magma lurraren sakoneratik irteten hasi zenean jaiotzen ziren, aro Tertziarioaren bukaeran.

Iparretik hegora lerrokaturiko lau uharte: L'Illa Grossa, Ferrera, Foradada eta Carallot, bakoitza bere haitzez inguraturik, Kuartenario arotik aurrera osatuak, klima hozteak magma solidotzea ahalbideratu zuenean.

Kaioek uharteak hegaldatzen dituzte eta sarri bertan egiten dituzte habiak. L'Illa Grossa-n, Audouin kaioaren koloniak aurkitzen dira eta hanka horidun kaio hauskarekin leihatzen dira. Elikagaiak ugariak izan daitezke, baina ez hainbeste espazioa eta ur geza, azken hau putzu txiki eta itsasargizainek - 1970 hamarkadaren erdialdean itsasargia automatizatu eta uharteko azken biztanleek alde egin aurretik-erabiltzen zituzten urasketara mugaturik dago.

Airetik Columbretes uharteek bizkarra erakusten duten arrainak dirudite, edo munstro mitikoak, lanbroak gandar bolkanikoak biltzen dituenen.

L'Illa Grossa izan zen agertzen lehenengoa eta bere izenaren lehenengo hizki larria irudikatzen du; bere haitzek berriz, Mascarat, la Senyoreta eta Mancolibre-k eten puntuak jartzen dituzte.

Ferrera, Foradada eta Carallot beranduago eratu ziren, mugarri malkarrak itsasoaren erdian.

Geroago higadurak borobildu zituen formak. Agente geologikoek beti jolasten dute lehenengo eraikitza eta higatza gero.

La Grossa-ren hego muturrean seinale dorre bat eta sei hilobi dituen hilerri bat daude. Bertan gelditu ziren itsasargizainen senideak.

Bizi izan ziren lekuaren aurrez aurreko muturrean hilobiratuak, eta lau kraterrek elkarrengandik banatuak. Krater hauek lurraren erraietaraino iristen ziren, eta orain, jalkinez beteak, uhartearen karenta osatzen dute.

Itsasargia ipar muturrean dago, XIX. mendeko etxandi zahar batean kokatua, 68 metrotako Colobrer muinoaren gainean.

Beste gainazal batzuetan, Mascarat haitzean esaterako, erupzioetan metatu eta ondoren solidotutako errauts bolkanikoak aurki ditzakegu.

Hoztea, ura, haizea, gatz...

Azkenean denbora da gauza guztiei forma ematen diena eta harri bakoitza dagokion tokian kokatzen duena, nahiz eta inoiz ez den behin betikoa izango.

Gaur forma egonkorak iruditzen zaizkigunak aldatzen jarraitzen dute. Orogenesia beti da azkarra eta bat-batekoa. Higadura, berriz, mailakakoa eta motela izan ohi da baina ekidinezina.

Columbretes uharteak desagertu egingo dira, hori da beraien patua, laba lurrazalaren hausturetan zehar itsasora irten zen Tertziarioko egun hartatik.